



ZENBAIT HIRI ETA LANDA ONDASUN HIGIEZINEN ENKANTEA EGITEKO
BALDINTZEN KARATULA BEREZIA

1.- ENKANTEAREN XEDEA:

VI. eranskinean zerrendatzen diren eta VII. eranskinean deskribatzen diren ondasun higiezinak besterentzea.

2.- KONTRATAZIO ORGANOA:

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua.

3.- ESPEDIENTE ZENBAKIA:

2019/90

4.- LIZITAZIO OINARRIA:

Ondasun higiezin bakoitzeko adierazten da, VI. eranskinean.

5.- BEHIN-BEHINEKO FIDANTZA:

Eskaintzaren xede d(ir)en ondasun(ar)en lizitazio oinarriaren % 20.

6.- BALDINTZA AGIRIA:

Interesdunek hauexetan dute eskuragai:

- Arabako Foru Aldundiaren Ogasuneko Erregistro eta Informazioa (Samaniego 14, beheko solairua, Gasteiz).
- Ondare Zerbitzua (Samaniego 14, 4. solairua, Gasteiz).
- Arabako Foru Aldundiaren web orria (www.araba.eus).

7.- HIGIEZINAREN DOKUMENTAZIOA:

Hemen eskatu eta kontsulta daiteke:

- Ondare Zerbitzua (Samaniego 14, 4. solairua, Gasteiz).
- Posta elektronikoko helbidea: patrimonio.finanzas@araba.eus
- Arabako Foru Aldundiaren web orria (www.araba.eus)

8. zenbakitik 29. zenbakira arteko loteei (El Escorialen kokatutako garajeak) buruzko dokumentazioa hemen eskatu daiteke: Inmobiliaria Jovy, Plaza de la Constitución, 0, 28200 San Lorenzo de El Escorial, Madrid. Garajeak ikusteko, higiezin agentzia horrekin hartu behar da hitzordua.



8.- AURKEZTEKO EPEA:

Enkante honen deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik 2019ko irailaren 30a arte.

9.- AURKEZTEKO LEKUA:

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra (Probintzia plaza 5, beheko solairua, Gasteiz) Eskaintzak postaz ere bidali daitezke, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 80. artikuluan ezarritako baldintzak beteta.

10.- AURKEZTEKO MODUA:

Bi gutun azal aurkeztu behar dira (“A” eta “B”) eta barruan baldintzen agirian adierazten dena sartu. Azalean esaldi hau idatzi behar da: “ONDASUN HIGIEZINEN ENKANTEA 2019” (eskuratu nahi den ondasun higiezinaren izena idatzi behar da).

Lizitatzailerak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du ondasun higiezin bakoitzeko. Lizitatzaileraren batek arau hau hautsiz gero, berak sinatutako eskaintza guztiak ezetsiko dira.

11.- ESKAERA EREDUA:

Baldintza agiriri gehitu zaio, I. eranskin modura.

12.- KONTRATAZIO MAHAIAREN OSAERA:

- Finantza eta Aurrekontu zuzendari jn.; mahaiburua izango da.
- Kontuhartzaitza Zerbitzuaren burua.
- Ondare Zerbitzuko burua.
- Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoko burua; mahaiko idazkaria izango da.

❖ Aurreko guztiek beste pertsona bat eskuordetu dezakete.

13.- ESKAINTZAK IREKITZEA:

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoko bosgarren egun baliodunean.

14.- ESLEIPENA:

Kontratazio Mahaiak garaiz eta behar bezala aurkezten diren agiriak kalifikatuko ditu, eta, ondoren, jendaurreko ekitaldian, onartutako eskaintzak irekiko ditu eta kontratua preziorik handiena eskaintzen duenari esleitzea proposatuko dio kontratazio organoari.

Esleipena HOGEITA HAMAR EGUN balioduneko epean egingo da, gutun azalak ireki ondorengo egunetik aurrera.

15.- PREZIOA ORDAINTZEA:

HILABETE BAT, esleipena jakinarazten denetik aurrera.



16.- ZERGAK ETA NOTARIO ETA ERREGISTRO GASTUAK:

Aldeek indarreko arautegian ezarritakoaren arabera ordaindu beharko dituzte zergak.

Notario eta erregistro gastuak esleipendunaren-eroslearen gain izango dira.

17.- ESKRITURAK SINATZEA:

Ondasun higiezia(k) esleitzeko prezioa osorik ordaindu eta gero, esleipendunak eskriturak sinatzeko eskatu ahal izango dio Administrazioari.

18.- ONDASUN HIGIEZINAK ERABILI AHAL IZATEA:

Ondasun higiezia(k) esleipendunaren eskura egongo d(ir)a esleipenaren zenbateko osoa ordaindu ondoren eta, edonola ere, eskriturak sinatzen diren unean.

Gasteiz, 2019ko uztaila.



ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ZENBAIT ONDASUN HIGIEZIN ENKANTE BIDEZ BESTERENTZEKO BALDINTZA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA

I.- XEDEA.

Baldintza agiri honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren ondasun higiezin batzuk besterentzea. Ondasun higiezin horiek VI. eranskinean zerrendatzen dira.

Ondasun higiezinak banaka xehatzen dira VII. eranskinean.

II.- ESLEIPENAREN PROZEDURA.

Enkante publiko bidezko prozedura irekia, eskaintzak gutun azal itxitan aurkeztuta. Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da eskaintza.

III.- LIZITAZIO OINARRIA.

Karatularen 4. puntuan adierazten da.

IV.- BEHIN-BEHINEKO FIDANTZA.

1.- Enkantean parte hartzeko nahitaezkoa izango da karatularen 5. puntuan aipatzen den behin-behineko fidantza jartzea.

2.- Fidantza jartzeko hiru modu daude, eta bakoitzean agiri bat jasoko da fidantza jarri izana frogatzeko:

- Fidantza eskudirutan jartzen bada, zenbateko hori Arabako Lurralde Historikoan jendearentzako bulegoa duen banketxe edo aurrezki kutxa batean Aldundiak d(it)uen kontu korrante arrunte(t)an sartu izanaren egiaztatzea.

- Banku abal bidez ere eratu daiteke; horrela eginez gero, abala Foru Aldundiaren Finantza Kudeaketa Zerbitzuan sartu delako frogagiria aurkeztu beharko da. Alabaina, badago beste aukera bat ere: lizitatuzaileak abalaren agiria aurkez dezake eskaintzarekin batera doan dokumentazioaren barruan; agiri hori Finantza Kudeaketa Zerbitzuak behar bezala askietsita egon behar da.

- Kauzio-aseguruko kontratu baten bidez. Kontratu hori arlo horretan lan egiteko baimena duen erakunde aseguratuzaile batekin egin behar da.

- Fidantza banku abal bidez eratzen bada, Foru Aldundiak onartutako eredu ofizialari egokituko zaio (eredua III. eranskinean dago) eta hurrengo hauetakoren batek egin beharko du: Arabako Lurralde Historikoan jendearentzako bulegoa duen banketxe edo aurrezki kutxaren batek; aseguru erakunderen batek, Foru Aldundiaren behar bezalako baimena duenak horretarako eta Araban egoitza edo ordezkaritza daukanak; edo elkarren bermerako sozietateren batek, Araban egoitza duenak. Gainera, erakunde abal emailearen ahaldunek, egintza hau egiteko behar besteko ahalordea dutenek, baimendu beharko dute, eta Arabako Foru Aldundiaren Finantza Kudeaketa Zerbitzuak askietsita egon beharko da.



3.- Bermeak berarekin dakar esleipendunak kontratuaren formalizazioa betetzea eta esleipen prezioa ordaintzea. Eskudirutan jarri bada, prezioaren zatitzat hartuko da. Era berean, eskaintza arrazoirik gabe bertan behera utziz gero, fidantza atxikiko da.

4.- Ondasunak esleitu zaizkien pertsonak salerosketa kontratua formalizatu eta berehala, bermea iraungi eta lizitatzaileri itzuliko zaie, baldin eta esleipendun izan ez badira.

V.- ESKAINZAK AURKEZTEA

A) Eskaintzak aurkezteko lekua.

Enkantean parte hartu nahi duten lizitatzailerek deialdiaren iragarkian adierazitako lekuetan aurkeztu beharko dituzte eskaintzak; karatularen 9. puntuan zehazten dira leku horiek.

B) Eskaintzak aurkezteko epea.

Karatularen 8. puntuan adierazten da.

C) Eskaintzak aurkezteko modua.

Bi gutun azal aurkeztu behar dira (“A” eta “B”), eta horien azalean idatzi behar da karatularen 10. puntuan adierazitakoa. Eskaintza aurkeztu duen pertsonaren sinadura eraman behar dute, bai eta haren ordezkariarena edo ahalordedunarena ere.

1.- “A” gutun azalean eskaintza ekonomikoa soilik sartu behar da. Baldintza agiri honen I. eranskinean datorren ereduaren arabera egin behar da.

2.- “B” gutun azalean ondoko hauek sartu behar dira:

2.1. Aurkezlea pertsona fisikoa bada, NANaren fotokopia.

Aldiz, pertsona juridikoa bada, IFZren fotokopia eta eraketa eskritura edo akta sartu behar da. Honek legezko betekizun guztiak bete behar ditu eta horrez gainera merkataritza erregistroan (edo behar diren erregistro publikoetan) behar bezala inskribatuta egon behar da edo, indarreko legeriaren arabera beharrezkoa izanez gero, administrazioaren baimena eduki behar du, eskaintza aurkeztu aurretik.

2.2. Eskaintza sinatuko duenak hirugarren baten edo sozietate baten ordezkari gisa jarduten badu, eskaintza aurkeztuko duenaren aldeko ahalordetze eskritura ere aurkeztu beharko du, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu ondasun higiezinak eskuratzeko. Arabako Foru Aldundiaren idazkari andreak edo haren legezko ordezkariak askietsita egon beharko da eskritura hori.

2.3. Indarrean dagoen legeriaren arabera administrazioarekin kontratuak sinatzea galarazten duten egoeretako batean ez dagoelako adierazpena, sinatuta. Adierazpen horren erudia baldintza administratiboen agiri honen II. eranskinean dago.

2.4. Eskaintza egiten duen pertsona fisikoa (edo pertsona juridikoaren administratzaileak) ondoko lege hauek arautzen diren egoeretako batean ez dagoelako adierazpena: 5/2006 Legea, apirilaren 10ekoa, gobernuko kideen eta estatuko administrazio orokorreko goi kargudunen interes gatazkak arautzen dituen; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, herri administrazioetako langileen bateraezintasunena; 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa,



hauteskundearen araubide orokorrarena. Adierazpen hori II. eranskinean datorren ereduaren arabera egin behar da.

2.5. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten agiriak, Foru Aldundiak edo Ogasuneko ordezkariak eta Gizarte Segurantzak eginak.

Aurreko betebeharrak betetzen dituela frogatzeko berariazko erantzukizunpeko adierazpena egin daiteke. Horretarako IV. eranskineko erudia edo antzeko besteren bat har daiteke aintzat. Adierazpen hori aurkeztuz gero, proposatzen den esleipendunak ziurtagiri egokiak aurkeztu beharko ditu hamar eguneko epealdian proposamena behin betikoa izateko.

2.6. Fidantza sartu edo eratu dela frogatzen duen dokumentazioa.

2.7. Fidantza itzuli behar den banketxea edo aurrezki kutxa eta kontuaren zenbakia (V. eranskina).

Aipatutako agiriak originalak izan daitezke, edo Administrazioak alderatutako kopiak, NANaren edo IFZren (hala badagokio) kasuan izan ezik.

Eskaintzak postaz bidali nahi badira, zorrotz bete beharko da Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamenduak 80. artikuluan dioena; bestela, eskaintzak ez dira onartuko.

VI.- KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio mahaiaren osaera karatula bereziaren 12. puntuan adierazten da.

VII.- ESKAINTZAK IREKITZEA.

Eskaintza ekonomikoen gutun azalak jendaurreko ekitaldian ireki eta irakurriko dira. Ekitaldia noiz (eguna eta ordua) eta non izango den karatularen 13. puntuan zehazten da.

Ekitaldi horren aurretik, dokumentazioaren gutun azalak irekiko dira ("B" gutun azalak). Kontratazio mahaiak barruan dauden agiriak aztertu eta kalifikatuko ditu, eta dagokion akta egingo du. Lizitatuzaileei hiru eguneko epea eman dakieke akats materialak edo egitatezkoak zuzentzeko; nolana ere, gutun azala irekitzen denerako fidantza ordaindu ez bada edo eskaintza ekonomikorik aurkeztu ez bada, eskaintza baztertu egingo da.

VIII.- ESLEIPENA.

"A" gutun azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldian, Kontratazio Mahaiak ondasuna eskaintza ekonomiko onena egin duenari esleitzea proposatuko du. Esleipena eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik HOGEITA HAMAR EGUN baliodun igaro baino lehen egingo da, edo esleipendunek falta diren agiriak aurkeztu eta gero.

IX.- PREZIOA ORDAINTZEA.

Behin betiko esleipena jakinarazi ondoren, esleipendunak HILABETE BAT izango du esleipenaren zenbatekoa ordaintzeko. Epe hori igaro eta ez bada diru sarrerarik egin, esleipenari uko egin zaiola esan nahiko du. Horrek fidantza galtzea ekarriko du berekin eta, indarreko kontratu legeriaren arabera, finka bigarren eskaintza onena egin duenari esleitu ahal izango zaio.



X.- BALDINTZA AGIRIAK ETA ONDASUN HIGIEZINARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

- 1.- Enkantearen baldintza agiriak bi modutan aztertu edo eskuratu daitezke: Arabako Foru Aldundiaren Ogasuneko Informazio bulegoetara (Samaniego, 14 - beheko solairua, Gasteiz) edo Ondare Zerbitzuaren bulegoetara (Samaniego, 14 - 4. solairua, Gasteiz) joan daiteke, bulego orduetan, edo Arabako Foru Aldundiaren web orrian sar daiteke (www.araba.eus).
- 2.- Enkantean esleituko diren ondasun higiezinari buruzko dokumentazioa Arabako Foru Aldundiaren Ondare Zerbitzuan eskuragai dago, bai eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere (www.araba.eus), nahi duenak azter dezan. Posta elektronikoko helbide honetan ere eskura daiteke: patrimonio.finanzas@araba.eus.
- 3.- 10. zenbakitik 31. zenbakira arteko loteei (El Escorialen kokatutako garajeak) buruzko dokumentazioa hemen eskatu daiteke: Inmobiliaria Jovy, Plaza de la Constitución, 0, 28200 San Lorenzo de El Escorial, Madrid. Garajeak ikusteko, higiezinaren agentzia horrekin hartu behar da hitzordua.

XI.- SALEROSKETAREN BALDINTZAK.

- 1.- Enkantean ateratako higiezinak “diren bezala” onartzen dira salmentari begira eta, beraz, egiatan baldintza agiritan edo jabetza tituluetan adierazitakoa baino handiagoak edo txikiagoak badira, alderdiek ez diote ezer itzuli beharko elkarri.
- 2.- Arabako Foru Aldundiak, Kode Zibilean ezarritakoaren ondorioz, finkaren egoera juridikoak eragin lezakeen ebikzio ororen gaineko erantzukizuna izango du.
- 3.- Arabako Foru Aldundiak juridikoki eta erregistroan erregularizatu beharko ditu esleitutako ondasunak, eskritura publikoa sinatu aurretik edo esleipendunei ondasunok eman aurretik.
- 4.- Esleipendunak bere gain hartuko ditu higiezinaren jabetza eta erabileraren ondoriozko gastu guztiak, hura bere esku jarri eta gero (baldintza agiri honen XIV. klausulan ezarritakoarekin bat etorritik). Hortaz, ordutik aurrera Administrazioak ez du edukiko esleitutako higiezinaren gaineko erantzukizunik, ezkutuko akatsengatik izan ezean.
- 5.- Arabako Foru Aldundiak ez du izango inolako erantzukizunik enkantean esleitutako finkaren gainean aldeztu aurretik zeuden eskubideak, lege ezarritakoak, baliatzearen inguruan; dena den, ebikzioaren ondoriozko saneatzea egin beharko du, Kode Zibilean edo bestelako lege testuetan ezarritakoaren arabera.

XII.- ZERGAK ETA NOTARIO ETA ERREGISTRO GASTUAK.

Salerosketa formalizatzeko eta inskribatzeko sortzen diren notario eta erregistro gastu guztiak esleipendunak ordainduko ditu, finkak bereiztean sortutako gastuak barne (halakorik egitea beharrezkoa bada).

Salerosketa kargatzen duten zerga guztiak alderdiek ordainduko dituzte, indarreko legerian ezartzen denarekin bat etorritik.

XIII.- ESKRITURAK SINATZEA.

Ondasun higiezinaren esleitzeko prezioa osorik ordaindu eta gero, esleipendunak eskriturak sinatzeko eskatu ahal izango dio Administrazioari.

Eskriturak sinatzeak eta erregistroan inskribatzeak dakartzen gastu guztiak eskuratzailerak ordaindu beharko ditu.



XIV.- ONDASUN HIGIEZINAK ERABILI AHAL IZATEA.

Ondasun higiezinak esleipendunen eskura egongo dira esleipen prezio osoa benetan ordaindu ondoren eta, edonola ere, eskriturak sinatzen diren unetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko uztaila.



ERANSKINAK

I.- Eskaintza ekonomikoa.

II.- Adierazpena, ez debekurik ez bateraezintasunik ez dagoela dioena.

III.- Abal erdua.

IV.- Erantzukizunpeko adierazpena, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioena.

V.- Eskudirutan jarritako fidantza itzultzeko agiria.

VI.- Enkantean ateratako hiri eta landa ondasun higiezinaren eta lizitazio oinarrien zerrenda.

VII.- Enkantean ateratako hiri eta landa ondasun higiezinaren deskripzioa.



I. ERANSKINA

ESKAINZA EKONOMIKOA

.....jaunak/andreak

(NAN:; egoitza:

.....

.....; telefonoa: ; posta elektronikoko helbidea:

.....), bere izenean edo

jaunaren / andrearen (IFK/NAN:; egoitza:

.....

.....) ordezkaritza gisa diharduela (horretarako ahalordea Zuzenbidearen

arabera askietsi da),

hauxe

ADIERAZTEN DU:

I.- Izan duela Arabako Foru Aldundiaren zenbait ondasun higiezin enkante bidez besterentzeko deialdiaren iragarkiaren berri.

II.- Ezagutzen dituela lizitazio hori arautzen duten karatula berezia, baldintza ekonomiko eta administratiboen agiria eta eranskinak, eta, hortaz, guztiz eta osorik onartzen dituela.

III.- Enkantean parte hartzen duela LOTEA izeneko ondasun higiezina eskuratzeko, eta ondasun horrengatik diru kopuru hau eskaintzen duela, eskualdaketa kargatzen duten zergak eta gastuak aparte: euro (idatzita:).

....., 2019ko ren (a)

Sin.:



II. ERANSKINA

ADIERAZPENA, EZ DEBEKURIK EZ BATERAEZINTASUNIK EZ DAGOELA DIOENA

Nik,

jaunak/andreak (egoitza:

..... ;

telefonoa:; posta elektronikoko helbidea:

.....),

..... jaunaren / andrearen (egoitza:

.....; identifikazio fiskaleko

zenbakia:) izenean eta haren ordezkari gisa dihardudala, hauxe adierazten dut
neure erantzukizunpean:

Ez sinatzaileak ez ordezkutzen duen entitateak ez daukatela inolako bateraezintasunik ez debekurik,
indarreko araudiaren arabera Administrazioarekin kontratuak egitea eragozten duenik.

Ez sinatzailea ez ordezkutzen duen pertsona juridikoaren administratzaileak ez daudela ondoko lege
hautetan arautzen diren kasuetan: 5/2006 Legea, apirilaren 10ekoa; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa;
5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa.

Hori guztia dela eta agiri hau sinatzen du.....(e)n, 2019koren
.....(e)(a)n.

Sin.:
NAN



III. ERANSKINA

ABAL EREDUA

.....
(kreditu entitatearen edo elkarrekiko bermerako sozietatearen izena) entitateak (IFZ:);
egoitza, jakinarazpenak eta agindeiak jasotzeko: kalea/plaza/etorbidea:
.....; posta kodea:; herria:
.....),

..... (ahaldunen izen-
abizenak) jaun-andreen bitartez, agiri honen behealdeko askiespenaren arabera egintza honetarako ahal
nahiko baitute, **ABALA EMATEN DIO**

(abaldunaren izen-abizenak edo sozietatearen izena)

.....
(r)i (IFZ:), an (bermea eratu beharra
ezarri duten arauak eta artikulua) xedatzen dena dela bide, Administrazioaren aurrean ondoko
betebehar hauengatik erantzuteko: (kontratua edo betebeharra zehaztu)

.....;
zenbatekoa: (hizkiz eta zenbakiz)

Abala eman duen entitateak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen
Legearen Arautegi Orokorrak 56.2. artikuluan ezartzen dituen betekizunak betetzen dituela. Abal hau
solidarioa da behartu nagusiarekiko, eta eskusioaren onurari uko eginda eta Administrazioaren lehen
eskaerarekin batera ordaintzeko konpromisoarekin eman da, azaroaren 8ko 9/2017 Legean, hura garatu
duten arauetan eta Gordailu Kutxa Orokorrari buruzko arauetan ezarritakoari lotuta.

Abal hau Administrazioak edo beraren izenean aritzeko legez gaitzen denak azkentzeko edo itzultzeko
baimena eman arte egongo da indarrean, azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta legeria osagarrian ezartzen
denarekin bat etorriz.

(Lekua eta data)

(Entitatearen izena)

(Ahaldunen sinadura)

**AHALORDEAREN ASKIESPENA, IDAZKARITZA OROKORRAK EGINA
ADMINISTRATIOAREN ASKIESPEN LANETAN**

Data

Zenbakia edo kodea



IV. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik,
jaunak/andreak (egoitza:
.....), neure izenean
edo jaunaren/andrearen (egoitza:
.....; NAN:
.....) ordezkari gisa dihardudala (horretarako ahalordea Zuzenbidearen arabera askietsi
da), hauxe adierazten dut neure erantzukizunpean:

Sinatzaileak edo ordezkatzeko duen entitateak egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte
Segurantzarekiko betebeharrak.

Hori guztia dela eta agiri hau sinatzen du(e)n, 2019koren
.....(e)(a)n.

Sin.:



V. ERANSKINA

DIRUTAN JARRITAKO FIDANTZA ITZULTZEA

.....
jaunak/andreak (egoitza:
.....; telefonoa:
.....; posta elektronikoko helbidea:),
..... jaunaren/andrearen (egoitza:
.....; IFZ:
.....) izenean eta haren ordezkari gisa diharduela,

ADIERAZTEN DU

AFAk
..... (adierazi izena) banketxean edo aurrezki kutxan duen kontu korrontean
.....
..... euro sartu dituela
(zehaztu zenbatekoa, letraz eta zenbakiz),
ondasun higiezina enkante ireki bidez besterentzeko behin-behineko fidantza gisa.

ESKATZEN DU

Goian aipatu den finka esleitzen ez bazaio, behin-behineko fidantzaren zenbatekoa ordaindu diezaiotela jarraian adierazten den kontu zenbakian (hurrengo orrian dagoen inprimakia bete behar da; **jatorrizko formatuan aurkeztu behar da agiri hori, eta banketxearen zigilua eraman behar du**).

....., 2019koren (a)

Sin.:



- Baliozko hirugarrenen fitxa PDF fitxategia da-

HIRUGARRENEN FITXA / FICHA DE TERCEROS

<i>Hirugarrenaren datuak / Datos del Tercero</i>			
IFZ/NIF	SOZIEATEAREN IZENA / RAZÓN SOCIAL		
IZENA/NOMBRE	1.ABIZENA / APELLIDO 1	2.ABIZENA/APELLIDO 2	
HELBIDEA/DIRECCIÓN		POSTA KODEA/CÓDIGO POSTAL	
HERRIA/LOCALIDAD	UDALERRIA/MUNICIPIO	PROBINTZIA/PROVINCIA	HERRIALDEA/PAÍS
1. TELEFONOA / TELÉFONO 1	2. TELEFONOA / TELÉFONO 2	FAXA / FAX	e-maila/e-mail

AFAk ordainketak egiteko bankuko datuak / Datos bancarios para que D.F.A. le realice pagos

FINANTZA ENTITATEA / ENTIDAD FINANCIERA

BANCO	
IBAN	SWIFT

Ez bada banku-konturik behar, markatu / Marcar, si no precisa cuenta bancaria



VI. ERANSKINA

ENKANTEAN JARRIKO DIREN ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

LOTEA	IZENA	LIZITAZIO OINARRIA
1	BULEGOA Vitoria-Gasteizen, Alaba Jeneralaren kalea, 10. 7 zenbakiko bulegoa, 204,23 metro koadro	178.200,00 euro
2	82 zenbakiko GARAJE PLAZA, sotoko laugarren solairuan. Alaba Jeneralaren kalea, 10.	22.000,00 euro
3	84 zenbakiko GARAJE PLAZA, sotoko laugarren solairuan. Alaba Jeneralaren kalea, 10.	22.000,00 euro
4	85 zenbakiko GARAJE PLAZA, sotoko laugarren solairuan. Alaba Jeneralaren kalea, 10.	22.000,00 euro
5	87 zenbakiko GARAJE PLAZA, sotoko laugarren solairuan. Alaba Jeneralaren kalea, 10.	22.000,00 euro
6	Lasarteko ORUBE baten % 36,363 LURZATIA Vitoria- Gasteizen, 13 poligonoko 69 zenbakia, 1.930,57 metro koadro.	60.000,00 euro
7	BASERRIA Okondon. Kontserbazio egoera txarrean dagoen eraikina, 38.537,49 metro koadroko lursailarekin	54.402,15 euro
8	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 12 lurzatia.	5.000,00 euro
9	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 14 lurzatia.	5.000,00 euro
10	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 24 lurzatia.	5.000,00 euro
11	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 25 lurzatia.	5.000,00 euro
12	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 26 lurzatia.	5.000,00 euro
13	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 29 lurzatia.	5.000,00 euro
14	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 30 lurzatia.	5.000,00 euro



LOTEA	IZENA	LIZITAZIO OINARRIA
15	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 31 lurzatia.	5.000,00 euro
16	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 32 lurzatia.	5.000,00 euro
17	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 37 lurzatia.	5.000,00 euro
18	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 38 lurzatia.	5.000,00 euro
19	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 39 lurzatia.	5.000,00 euro
20	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 43 lurzatia.	5.000,00 euro
21	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 44 lurzatia.	5.000,00 euro
22	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 45 lurzatia.	5.000,00 euro
23	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 51 lurzatia.	5.000,00 euro
24	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 52 lurzatia.	5.000,00 euro
25	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 55 lurzatia.	5.000,00 euro
26	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 56 lurzatia.	5.000,00 euro
27	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 57 lurzatia.	5.000,00 euro
28	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 58 lurzatia.	5.000,00 euro
29	GARAJEA El Escorialen (Madrilgo probintzia), Alfonso XIII kalea, 15 zenbakia, 61 lurzatia.	5.000,00 euro



VII. ERANSKINA

1. LOTEA

Bulegoa, Vitoria-Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakian kokatua. 7 zenbakia du, laugarren solairuan dago, 204,23 metro koadro hartzen ditu eta zenbait areto eta gelatan banatuta dago.

2. LOTETIK 5. LOTERA

82, 84, 85 eta 87 zenbakiko garaje plazak, Vitoria-Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakian kokatuak, sotoko laugarren solairuan. Azalera 27,21 metro koadrokoa da, gutxi gorabehera.

6. LOTEA

Lasarteko orube baten % 36,363. Lurzatia Vitoria-Gasteizen. 13 poligonoko 69 zenbakia, 1.930,57 metro koadro. Arabako Foru Aldundia lurzatiaren jabeakidea da, partikular batekin eta Lasarteko Administrazio Batzarrarekin batera. Eskrituran jasota dago bi bizitzako etxearen bizitegi erabilerarako aprobetxamendua.

7. LOTEA

Baserria Okondon. 3 poligonoko 150 lurzattia. Baserria kontserbazio egoera txarrean dago, eta 38.537,49 metro koadroko lursaila du.

8. LOTETIK 31. LOTERA

22 garaje plaza, Madrilgo El Escorial udalerriko eraikin batean kokatuak, Alfonso XIII kaleko 15. zenbakian.

2019ko uztaila.